

Irizarrek gidariaren nekea antzemateko sistema duten lehen autokarrak entregatu dizkio Julián de Castrori

Ormaiztegi, 2014ko otsailaren 3a

Ekitaldian izan zen Madrilgo Erkidegoko Garraio, Azpiegitura eta Etxebizitza Kontseilaria, Pablo Cavero jauna, eta baita politika arloko beste ordezkari batzuk ere.

Joan den urtarrilaren 29an, Colmenarejon egindako ekitaldi batean, Julian de Castro bezeroak erositako hiriarteko bost autokar berriak aurkeztu ziren. Irizar i4 eta Irizar i6 autokar modeloak dira, 13 metroko luzerakoak eta Volvo E6 txasisaren gainean eginak, 55 eta 59 eserlekukoak hurrenez hurren, 3 helmuga-kartelekin, SAE eta PMR instalazioa eta Masats K7 eta SAM 4000 jasogailu automatikoekin, hurrenez hurren.

Barnean tapizeria eta diseinu berritzailea jartzeaz gain, berrikuntza gisa azken aurrerapenak dituzte segurtasun arloan, gidariaren nekea antzemateko sistemak (FDW) baitituzte

Ekitaldian izan ziren Madrilgo Erkidegoko Garraio, Azpiegitura eta Etxebizitza Kontseilaria, Pablo Cavero jauna, CRTMko gerentea Jesus Valverde jauna, Collado Villalba, El Escorial, Galapagar eta Villanueva de la Cañadako alkateak eta udalerrri gonbidatzaileko agintari Nieves Roses andrea. Horrez gain han izan ziren Julián de Castro, Irizar, Datik eta Volvoko ordezkariak ere.

Gidariaren nekea antzemateko sistema (FDW)

Aurkeztutako ibilgailuek nekea antzemateko sistema dute, Irizar taldeko Datik enpresak garatutako irtenbide bat. Datik aitzindaria da gidatzerakoan lagundu, informatu eta laguntzen duten sistema teknologiko aurreratuak garatu eta aurkezten.

Gidariaren nekea antzemateko sistema laguntzeko sistema teknologiko aurreratua da. Distrazio eta talka arriskua murrizten ditu, egoerak antzeman eta aurreikusten baititu ikusmen artifizialeko teknologien bidez, eta hartara, gidatzea fidagarriagoa da.

Gidariaren neke eta distrakzioagatiko detekzioa funtsean da da begi kliskatzeak eta buruaren nahiz begien mugimenduak ikuskatzea, gidariaren erreakzio arriskutsuak eragin litzaketan ekintza ohiz kanpokoak detektatzeko helburuz. Halakoetan, gidariari abisu emateko alarmak aktibatzen dira. Sistemaren osagaiak honako hauek dira: kamera bat, prozesagailu bat eta eserlekuak bibratzeko ohartarazle bat, bidaiariak aztoratzea saihesten duena alerta martxan jarritakoan.

Era berean, abantaila lehiakor handia dauka gidaria bakarrik ohartaraztera mugatzen diren beste produktu konbentzional batzuen aldean. Irudiak grabatzeko eta alertak nahiz gorabeherak erregistratzeko zerbitzuak eskaintzen ditu; baita informazioa web plataforma baten bidez unitate zentral batera helarazteko aukera ere, ondoren ondorioak ateratzeko eta jasotako informazio guztia



kudeatzeko, egindako arau haustek detektatu, ibilbide seguruagoak planifikatu eta gidatzeko ohiturak optimizatze aldera.

Segurtasuna, zerbitzua eta teknologia

Teknologian, segurtasunean eta jasangarritasunean inbertitzeak beste behin erakutsi du Julian de Castrok berrikuntzaren alde apustu egiten duela. Bidaiariak kalitatezko bidaia segurua egiteko aukera du eta autokarra garraibide ziur, jasangarri, eroso eta etorkizunerako beharrezkoa dela erakusten du.

Bost unitate berri horiek azken urteko beste hamabiri gehitzen zaizkie, eta argi uzten dute kalitatearekin eta zerbitzuarekin duten konpromisoa, haien flota etengabe berrituz. Gaur egun Autocares JULIÁN DE CASTRO enpresak 120 langile ditu eta 85 ibilgailu. Egunean 18.000 bidaiari garraiatzen ditu eta sei milioi eta hirurehun mila kilometro baino gehiago egiten ditu urtean hiriarteko sei linea, hiri barruko lau linea eta garraio zerbitzu berezietan.